



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

EUSKADI 2015-2020 LGP-REN 16. NEURRIA

LANKIDETZARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

2017

GIDA ORIENTAGARRIA GALDERARIK OHIKOENAK



EDUKIA

1.- AURKEZPENA	3
1.1.- Zergatik eta zertarako egiten dugu dokumentua?	3
1.2.- Norentzat izan daiteke dokumentua erabilgarria?	3
2.- TESTUINGURUAN KOKATZEA	4
2.1.- Zer arau daude laguntzarekin lotuta?	4
2.2.- Zer estrategia eta sektoreko plan edo lurralde-plan lot daitezke laguntzarekin?	4
2.3.- Zer da lankidetzak?	5
2.4.- Noiz EZ da proiektu bat lankidetzakoa?	5
2.5.- Lan-loturarik edo lotura ekonomikorik egon daiteke eskatzaileen artean?	5
2.6.- Zer da berrikuntza?	5
2.7.- Zer EZ da berrikuntzarako proiektua?	6
2.8.- Zer da lankidetzako berrikuntza nekazaritzako elikagaien sektorean?	6
2.9.- Zer beste kontzeptu ezagutu behar dira?	6
3.- ESKABIDEAK AURKEZTEA	8
3.1.- Neurri bakoitzean, zer proiektu mota espero da lankidetzarako laguntzen deialdira aurkeztea?	8
3.2.- Zer alde dago 16.1 azpineurriko eta 16.2 azpineurriko proiektuen artean?	9
3.3.- Neurri honetan, zer eginkizun izan dezakete eragileek proiektuaren taldean (talde operatiboa edo berrikuntza-taldea)?	10
3.4.- Zer kostu mota finantzatu daitezke lankidetzarako laguntzarekin?	10
3.5.- Zer dokumentu dira beharrezkoak lankidetzako proiektua aurkezteko?	11
3.6.- Non aurkeztu behar dira agiriak?	13
4.- ORDAINKETA ESKATZEA ETA GASTUA JUSTIFIKATZEA	14
4.1.- Nola eskatzen da ordainketa?	14
4.2.- Nola justifikatzen da ordainketa?	14
5.- PROIEKTUA ETA HAREN EMAITZAK EZAGUTARAZTEA	15
6.- KONTSULTEI ETA ZALANTZEI DAGOKIENEZ	16
6.1.- Neurri horren esparruan, lankidetzako proiektuaren proposamena prestatzeari eta aurkeztzeari dagokienez zalantzarik badut, norengana jo dezaket?	16
I. ERANSKINA	17
II. ERANSKINA	21
PROIEKTUEN BALORAZIO ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEEN GLOSARIOA	23

1 AURKEZPENA

1.1. Zergatik eta zertarako egiten dugu dokumentua?

Dokumentuaren helburua da Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Lankidetzarako Laguntzen 2017ko deialdiko parte-hartzaileak orientatzea –1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 35. artikulua araberak, zeina LGENF **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoaren** bidezko landa garapena laguntzeari buruzkoa baita—.

Laguntzen helburua lankidetzako berrikuntza sustatzea da. Berritasunekin batera, kasu honetan gertatzen den moduan, galderak eta zalantzak sortzen zaizkie deialdiko parte-hartzaileei (onuradun potentzialak), eta erantzun argigarriak eta sistematizatuak eman behar zaizkie.

Hortaz, dokumentuaren helburua da erantzun erraz eta argiak ematea laguntzen lehen deialdien ondoren sortu diren zalantzei eta galderei. Era berean, dokumentua dagokionean garatu eta aldatuko da, tresna “biziduna” baita.

Modu osagarrian, beste informazio interesgarri batzuetarako sarbidea erraztu nahi du; esaterako: gehien erabiltzen diren definizioak, erreferentziak, estrategiak eta planak, betiere lankidetzako berrikuntza sustatzeko norabidea eta testuingurua ezagutzen laguntzen dutenak.

1.2.- Norentzat izan daiteke dokumentua erabilgarria?

Eskatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde hauentzat: Euskal autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien sektorean eta landa-ingurunean lankidetzako berrikuntzarako proiektuak abian jarri nahi dituztenentzat eta proiektu horiek abian jartzeko lankidetzarako laguntzen deialdira aurkezteko interesa dutenentzat.



2 TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1.- Zer arau daude laguntzarekin lotuta?

Laguntzari lotutako arau garrantzitsuenak hauek dira:

- a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 (EB) Erregelamendua, abenduaren 17koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Fondoaren bidez (LGENF) landa garapenari laguntzeari buruzkoa.
- b) 43/2017 Dekretua, 2017ko otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.
- c) 2017ko XXXXaren XX(e)ko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 35. artikuluan ezarritako laguntzak emateko 2017. urterako deialdiaren oinarriak onartzen dituena.

2.2.- Zer estrategia eta sektoreko plan edo lurralde-plan lot daitezke laguntzarekin?

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak landu dituzten eta proiektu bat aurkezteko orientabide gisa balio dezaketen estrategien eta planen artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- a) OSOA Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020
<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/osoa/hasiera/>
- b) Eskualdeko Landa Garapenerako Programa 2015-2020
<http://www.euskadi.eus/informazioa/eskualdeko-landa-garapeneko-programak-2015-2020/web01-a2lanits/eu/>
- c) BLEB Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Bizia
<http://www.euskadi.eus/aurkezpena-berrikuntza-lankidetzara-estrategia/web01-a2nekber/eu/>
- d) EIEP Elikadura Industriaren Eraginkortasun Plana
<http://www.euskadi.eus/elikagai-industriaren-lehiakortasun-plana/web01-a2elikin/eu/>
- e) EEIPE Euskadiko Egurraren Industriaren Plan Estrategikoa
<http://www.euskadi.eus/egurraren-sektoreko-plan-estrategikoa/web01-a2elikin/eu/>
- f) ENESP Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren Sustapen Plana
http://www.euskadi.eus/plana_programa_proiektua/nekazaritza-ekologikoaren-sustapenerako-plana-fope/web01-s2ekono/eu/
- g) EZTBP Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020
<http://www.euskadi.eus/2020-pcti-plana/web01-s2ekono/eu/>

2.3.- Zer da lankidetzatza?

Neurriaren testuinguruan, helburu bera duten eta elkarlaneko metodoak eta elkartze-metodoak erabiltzen dituzten pertsona taldeek edo erakundeek garatutako lan-estrategiatzat hartu behar da lankidetzatza.

2.4.- Noiz EZ da proiektu bat lankidetzakoa?

- Nagusiki, enpresa “hornitzaile” batek enpresa “bezero” bati irtenbide bat ematen dionean, hau da, agerian uzten denean bi enpresen artean azpikontratazio bat dagoela eta ez lankidetzako proiektu bat.
- Ikusten denean banakako helburuen batura baino ez dela eta ez dagoela helburu komunik.
- Kideetako baten aurrekontua aurrekontu osoaren % 60 baino gehiago izatea, horrek ez bailuke kideen ekarpenaren oreka bermatuko.

2.5.- Lan-loturarik edo lotura ekonomikorik egon daiteke eskatzaileen artean?

Bai, talde eskatzailean gutxienez 2 eskatzaile independente egon behar dira, haien arteko lotura organikorik edo funtzionalik ez egoteko.

2.6.- Zer da berrikuntzatza?

Berrikuntzatza **praktikan arrakasta** izan nahi duen **ideia berria** da (**balioa sortzen du, baina ez du zertan ekonomikoa izan**).

Ideiak izan dezakeen arrakasta erakusteko, praktikan jarriko duen proiektu pilotu bat egin behar da.

Ideia berria ezagutza berri batean (ezagutzak ez du zertan zientifikoa izan) edo ezagutza tradizional batean oinarritu daiteke, produktu edo zerbitzu, prozesu, merkaturatze-metodo edo antolatze-metodo berri edo nabarmen hobetutako bat eratzeko.

Gainera, berrikuntzatzat jotzen dugu berria izan behar ez duen ideia bat testuinguru geografiko berri batean garatzea, balio bereizgarria badu. Deialdiaren ondorioetarako, testuinguru geografikoa noraino heltzen den zehazten du 2015-2020 aldirako Eskualdeko Landa Garapenerako Programak proiektatzen diren eremu geografikoak.

2.7.- Zer EZ da berrikuntzarako proiektua?

- Ezagutza berri bat sortzeak ideia bera ezartzeak baino pisu handiagoa badu (I+D proiektua izango litzateke).
- Irismenak ez badu frogarik barne hartzen eta aztertze-fasera mugatzen bada.
- Ideia berria ez bada, edo ezarrita badago eta ez badu balio bereizgarririk.

2.8.- Zer da lankidetzako berrikuntza nekazaritzako elikagaien sektorean?

Hainbat eragilek proiektu berean elkarrekin lan egitea hauxe frogatzeko: nekazaritzako elikagaien sektoreko behar bat betetzen duen edo aukera bat aprobetxatzen duen ideia batek izan dezakeen arrakasta.

Lankidetzako berrikuntzak berekin dakar ezagutza, elkarrekintza eta berdinen arteko komunikazioa partekatzea ideia berria abian jartzeko parte hartzen duten eragileen artean: nekazariak, aholkularitza-zerbitzuak, ikertzaileak, elikagaien industria, enpresa laguntzaileak.

Berrikuntzak ideiak izan dezakeen arrakasta praktikan frogatzea eskatzen duenez, komeni da proiektuko berrikuntzaren azken erabiltzaileak (nekazariak, abeltzainak, baso-kudeatzaileak edota elikagaien industria) proiektuaren alde aktiboak izatea.

2.9.- Zer beste kontzeptu ezagutu behar dira?

- **Berrikuntza-eragilea (berrikuntza-brokerra):** pertsona edo erakunde inpartzialak dira, proiektua burutzeko ekintzaile egokiak –enpresak, pertsonak, ikerketa-taldeak, ikerketa-entitateak, aholkularitza-erakundeak, finantza-iturriak, eta abar– bilatu eta harremanetan jartzen dituztenak, proiektuan teknikoki sartuta egon beharrik gabe; hau da, eragile moduan aritzen dira berrikuntza-prozesuaren bi alderdi edo gehiagoren artean. Talde operatiboak eratzen ere laguntzen dute. Ideia berritzaileak identifikatzen dituzte, berriro definituz, berrikuntzaren egileak hautatuz eta lotuz, balioa ekar dezaketek ekimenak bultzatuz behetik gora –ideia horiek modu lehiakorrean proiektatzeko– eta behar den finantzaketa bilatzen lagunduz. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, berrikuntza-eragile modura aritzeko espazio bat eta neurri honi lotutako Brokering Innovation prozesua kudeatzeko arduraduna da Katilu.
- **Banaketa-kate laburrak:** hornikuntza-kate bat da, lankidetzarekin, tokiko garapen ekonomikoarekin eta gertuko eremu geografiko batean ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman sozioekonomikoekin konprometitutako agente ekonomikoen kopuru mugatu batek osatutakoa. 16.4 azpineurriaren ondorioetarako, banaketa-kate laburtzat hartuko dira ekoizlearen eta kontsumitzaileen artean bitartekaririk ez dagoen edo bitartekari bakarria dagoen kateak.
- **Talde operatiboak:** hantaldeak dira, deialdiaren baldintza guztiak betetzen dituztenak eta lankidetzako proiektu bat egingo dutenak arazo/erronka zehatz bati aurre egiteko irtenbide berritzaile baten bidez 16.1 azpineurriaren esparruan.

- **Berrikuntza-taldea:** lantalde bat da, deialdiaren baldintza guztiak betetzen dituena eta lankidetzako proiektu bat egingo duena arazo/erronka zehatz bati aurre egiteko irtenbide berritzaile baten bidez 16.2, 16.3, 16.4, 16.5, 16.6 edo 16.9 azpineurrien esparruan.
- **Tokiko merkatua:** 16.4 azpineurriaren ondorioetarako, nekazaritza-elikagaiak saltzeko azokak eta merkatu tradizionalak hartuko dira tokiko merkatutzat, dagozkien foru organoek ezarritako arauak Nekazaritza eta Elikadura Politikako 17/2008 Legearen arabera betetzen dituztenak.
- **Proiektu pilotua:** ekintza esperimental edota frogagarri laburren multzoa, 16. neurriak onartutako proiektuaren esparruan garatutakoak. Diseinatzean ezarri zizkieten xedeak erdiestea da ekintza horien helburua. Lortutako emaitzak espero zirenak izan daitezke edo ez. Proiektuak izan dezakeen arrakasta frogatzeko balio behar du.
- **Dokumentu operatiboa:** martxan jarriko den proiektua deskribatzen duen dokumentua: hasierako egoera, helburuak, ekintzak, espero diren emaitzak (lehen sektorean izango duen eragina), izaera berritzailea, kronograma, aurrekontua, eta abar. Baita partzuergoaren osaera, proposatutako helburuak lortzeko kideen egokitasuna eta bakoitzaren erantzukizunak ere. Proiektua idazteko prozesua errazteko, gidaliburuaren 1. Eranskinean dokumentu operatiboaren eredu bat dago.
- **Eragile txikia:** 16.3 azpineurriaren ondorioetarako, Batzordearen 2003/361 gomendioaren definizioarekin bat datozen mikroenpresak hartzen dira eragile txikitzat, hau da, 10 langile baino gutxiago dituzten eta 2 milioi euro baino gehiagoko urteko negozio-bolumenik edo urteko balantze orokorrik ez duten enpresak. Langile autonomoak ere eragile txikiak dira.

3 ESKABIDEAK AURKEZTEA

3.1.- Neurri bakoitzean, zer proiektu mota espero da lankidetzarako laguntzen deialdira aurkeztea?

1. **16.1 azpineurria** NEKAZARITZAREN PRODUKTIBITATEAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ARLOKO EBE EUROPAKO BERRIKUNTZA ELKARTEAREN helburuekin bat datozen lankidetzako proiektuak sortzea eta garatzea. https://ec.europa.eu/agriculture/index_en

Adibidez: **IDIAZABALGO GAZTAREN BALIO-KATEAREN BATERAKO LEHIAKORTASUNEAN AURRERA EGITEKO LANKIDETZA**

Proiektuaren helburua lankidetzan, balio-katearen integrazioan eta sinergien bilaketan hobetzea da, Idiazabalgo JDB gaztaren sektorean zabaltzeko. Lankidetzaren eta berrikuntzaren kultura sustatuz, sektorea gehiago kohesionatzea da helburua, eragileek elkarri lehiakide soil gisa begiratzeari utzi eta guztientzako onuragarriak diren helburuak lortzeko ahaleginak batu ditzaten. Zehazki, hauexek dira helburuak: Idiazabalgo JDB gaztaren balio-katean eraginkortasuna sustatzea, esnearen ekoizpenetik merkatura arte, eta ekoizleen eta eraldatzaileen arteko konpromiso egonkorra erraztea.

2. **16.2 azpineurria** Nekazaritza-, elikadura- eta baso-sektoreetan produktu, praktika, prozesu eta teknologia berriak garatzea.

Adibidez: **EGOSKARIEN PROTEINA FORMATU EZ-TRADIZIONALEAN BALIOZTATZEKO ESKAINTZA-LERRO BERRIA**

Proiektuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztako egoskarien proteina balioztatzeko eskaintza-lerro berria garatzea, kontsumo-formatu ez-tradizionalean eta osasun- eta komenentzia-ezaugarriekin. Eskaintza horiek kontsumitzaileen merkatu-hobi zehatzeentzat dira eta oinarri teknologiko bereizgarria dute.

3. **16.3 azpineurria** Eragile txikien arteko lankidetzarako proiektu berriak garatzea, elkarrekin dituzten lan-prozesuak antolatze eta instalazioak eta baliabideak partekatze, baita landaturismoarekin zerikusia duten turismo-zerbitzuak garatzeko edo merkaturatzeko ere, landa-eremuetako eragile txikiei lagunduz eskalako ekonomiak bilatzen, horrelako laguntzarik ez baitute bakarka aritzen direnean.

Adibidez: **GORBEIA ZURE ETXEAN**

Helburua nekazaritzako elikagaien sektorea eta sektore turistikoa elkartzea da, GORBEIA helmuga turistikoaren nekazaritza-elikagaien balioa handitzeko. Horretarako, parte hartzen duten enpresek "Gorbeia txokoa" izeneko espazioa erabili ahalko dute. Han, informazio turistikoa eta eskualdeko nekazaritza-elikagaiak eta artisau-produktuak erakutsi ahalko dituzte.

4. **16.4 azpineurria** Banaketa-kateko eragileen arteko lankidetzako proiektu berriak garatzea, merkaturatze-bide laburrak eta tokiko merkatuak martxan jarrita edo garatuta beren produktuak merkaturatzeko eta sustatzeko, baita produktuak tokian-tokian ezagutarazteko jarduerak gauzatzeko ere.

Adibidez: **BERTATIK BERTARA EKOIZLE ETA KONTSUMITZAILEEN ARTEKO KONTSUMO SARE LABURRA**

Helburua da lau jantoki publikotan saiakuntza bat egitea tokiko produktu ekologikoak sartuz, kontsumo kolektiborako garapen-estrategia bat diseinatzeko, merkaturatze-kate laburrak egituratzeko urrats gisa.

5. **16.5 azpineurria** Lankidetzako proiektu berriak garatzea, klima-aldaketa arintzeko edo horretara egokitzeko, eta ingurumen-proiektuen eta uneko ingurumen-praktiken inguruko baterako planteamenduak egiteko.

Adibidez: **BASERRITARREN KONPOSTA**

Proiektuak bi saiakuntza pilotu sustatzeko balioko du. Saiakuntza horien helburua da hondakinak kudeatzeko sistema deszentralizatuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa frogatzea. Sistema horretan nekazariak lan egingo dute, eta udal hondakin organikoen ekoizle handiei egongo da zuzenduta.

6. **16.6 azpineurria** Banaketa-kateko eragileen arteko lankidetzak horizontaleko eta bertikaleko proiektu berriak garatzea, biomasaren horniketa jasangarriari begira, elikagaiak eta energia ekoizteko eta industria-prozesuak sortzeko.

Adibidez: **VITIBIOM - ARABAKO ERRIOXAKO AIHENAK BIOMASAKO BALIABIDE GISA ERABILTZEA**

Arabako Errioxako mahastien inausketatik sobera den biomasa energiarako aprobeztatzea eta energia hori balioztatzea da proiektuaren helburu nagusia.

7. **16.9 azpineurria** Lankidetzako proiektu berriak garatzea nekazaritza-jarduerak dibertsifikatzeko honako hauekin zerikusia duten jardueretan: osasun-arreta, gizarteratzea, komunitateak babestutako nekazaritza eta ingurumenaren eta elikadurari buruzko heziketa.

Adibidez: **LURRA, LANA, JANA LARRABETZUN**

Larrabetzuko agroekologia-trantsiziorako eta autoenplegua sustatzeko programa; hori ekoizpena eta elikagai agroekologikoen eskaria handituz lortuko da.

3.2.- Zer alde dago 16.1 azpineurriko eta 16.2 azpineurriko proiektuen artean?

16.1 azpineurriko proiektuek, 16.2 azpineurrikoen aldean, EBE Agri elkarteak proposatutako helburuei erantzun behar diete.

16.1 azpineurriko proiektuek helburu hau izan beharko lukete:

- Nekazaritza- eta baso-sektorea bultzatzea: **baliabideen erabilera efizientea** egiten duena; ekonomikoki bideragarria dena, produktiboa eta lehiakorra; emisio-maila txikikoa eta klimarekiko errespetua eta haren aldaketei aurre egiteko gaitasuna duena; perspektiban, **produktzio-sistema ekologikoa** duena, eta harmonian diharduena nekazaritzaren eta basogintzaren oinarri diren funtsezko baliabide naturalekin;
- Modu **egonkorrean eta jasangarrian hornitzea** elikagaiz, pentsuz eta biomaterialez, dagoeneko existitzen diren motetakoez zein berriez;

3.3.- Neurri honetan, zer eginkizun izan dezakete eragileek proiektuaren taldean (talde operatiboa edo berrikuntza-taldea)?

ONURADUNA: : talde operatiboko edo berrikuntza-taldeko kidea den eta emate-erabakia dagokion pertsona fisiko edo juridiko oro. Hau da, onartutako proiektua egiteko diru-laguntza jasotzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

TALDEAREN AHALDUNA EDO ORDEZKARIA: talde operatibo edo berrikuntza-talde eskatzaile guztiek ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute. Pertsona horrek aurkeztuko du laguntzaren eskaera talde operatiboaren edo berrikuntza-taldearen izenean. Ordezkaria laguntzaren onuradunetako bat izan behar da. Administrazioaren aurrean hizketakide bakarria izango da eta proiektua zuzentzeko eta koordinatzeko erantzukizun orokorra izango du, laguntzaren alde teknikoari, finantzarioari eta administrazio-kudeaketari dagokienez. Diru-hartzailea izango da eta diru hori gainerako kideen artean banatzeaz arduratuko da.

3.4.-Zer kostu mota finantzatu daitezke lankidetzarako laguntzarekin?

1. Azterlan orokorren, bideragarritasun-azterlanen eta enpresa-planak egiteko kostuak.

- Azterlanak, txostenak, planak eta abar egiteko beharrezkoak diren kostuak dira.
- Oro har, **barneko langileen** kostuak edo **kanpo-laguntza** azpikontratatzeko kostuak izango dira. Noizbehinka, **bidaiak eta dietak** ere sartuko dira.

Adibidez: garatutako produktu berri baten merkatu-bideragarritasunaren azterketa.

2. Proiektu bat bideragarri egiteko eta dagokion eremuan egindako **dinamizazio-, bultzatze-** eta **animazio-**jardueren kostuak:

- Hauxek izan daitezke: ekitaldiak, jardunaldiak, tailerrak, erakusketak, aldizkako prestakuntza-jarduerak, eta abar. Horiek proiektuaren esparruan egingo dira eta helburuak lortzeko funtsezkotzat jo beharko dira.
- Oro har, **barneko langileen** kostuak edo **kanpo-laguntza** azpikontratatzeko kostuak izango dira. Noizbehinka, **bidaiak eta dietak** ere sartuko dira.

Adibidez: ekoizleekin egindako tailer bat, produktu berriekin dibertsifikatzeko beharrak biltzeko.

3. Lankidetzeta-jardueren **funtzionamendu-**gastuak.

- Kategoria honetan, partzuergoaren, beste erakunde batzuen edo eragileen bilerekin lotutako gastuak sartzen dira,
- **Barneko langileen** eta **bidaien** eta **dieten** gastuak hartzen ditu barnean.

Adibidez: jarduerak planifikatzeko edo horien segimendua egiteko partzuergoaren bilerak.

4. Proiektu pilotuak egiteko **beharrezko** diren gastuak.

- Lankidetzako proiektuaren esparruan proiektu pilotu bat edo gehiago martxan jartzeak sortutako gastu guztiak dira.

- Kostu hauek sartzen dira: **barneko langileenak, bidaienak eta dietenak, ekipoenak eta azpiegiturenak, kontsumigarrienak (hala nola material suntsikorra edota lehengaiak)** eta **kanpo-laguntzaren** azpikontratazioenak.

Adibidez: ezpalak (biomasa) erretzeko galdara bat egokitzea: ezpal-makina, zura biltzeko logistika, ezpal-makinara eta galdarara garraiatzea, zura eta ezpalak metatzea eta gordetzea.

5. Komunikazio- eta hedapen-jardueren gastuak.

- Honako hauek sartzen dira: proiektuaren helburuak, ekintzak eta emaitzak komunikatzeko eta hedatzeko jarduerekin lotutako kostu guztiak.
- Nagusiki, hauek ere sartzen dira: **barneko langileak, kontsumigarriak (hala nola material suntsikorra edota lehengaiak), lokalak alokatzea** eta **kanpo-laguntza teknikoa** azpikontratatzea.

Adibidez: webguneak, liburuxkak, bideoak, informatzeko jardunaldiak, eta abar.

Oro har, langileen kostuen % 15era arteko zeharkako kostuak hartuko ditu.

3.5.- Zer dokumentu dira beharrezkoak lankidetzako proiektua aurkezteko?

3.5.1.- Orokorrak

- a) Eskaearen eredu normalizatua
- b) NAN (pertsona fisikoentzat) edo IFK (pertsona juridikoentzat)
- c) Ahalordetze-eskritura eta legezko ordezkariaren NAN
- d) Erakundearen eratze-eskritura eta estatutuak

3.5.2.- Espezifikoak

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, aurkezten den proiektuaren jarduerak berriak direla adierazten duena.
- b) «Dokumentu operatiboa», proiektuaren taldekide guztiek sinatutakoa. I. eranskina atxiki da, dokumentuaren formaren eta edukia eredu orientagarri gisa. Nolanahi ere, hauek azaldu behar ditu:
 - Proiektu berritzailearen eta espero diren emaitzen deskribapena.
 - 16.1 azpineurriaren laguntzei lotutako proiektuen kasuan: baliabideen produktibitate eta kudeaketa iraunkorra sustatzeko EBERen helburuari egingo zaion ekarpenaren deskribapena.
 - Talde operatiboko edo berrikuntza-taldeko kideen zerrenda, eta horietako bakoitzak garatu beharreko jardueren deskribapena.
 - Funtzionamenduari zein erabakiak hartzeko moduari dagokienez, gardentasunez aritzeko asmoz ezarritako barne-prozeduren deskribapena.
 - Talde operatiboko edo berrikuntza-taldeko kide bat izendatzea funtsen hartzaile; horrek banatuko ditu funtsok gainerako kideen artean.

3.5.3.-Talde operatiboen/berrikuntza-taldeen jarduteko araubideari buruzko orientabideak

Dokumentu operatiboaren (I. eranskina) 7. atalak haxe zehaztu behar du:

3.5.3.1. Hasiera eta iraupena

Eskaera egiten den egunean sartuko da indarrean. Iraungitze-data hau izango da:

- Taldeari ez badizkiote eskatutako laguntzak esleitzen, dagokion ebazpena noiz jakinarazi den adierazten duen data.
- Taldeari eskatutako laguntzak esleitzen badizkiote, iraupena Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluek ezarritako preskripzio-epeak igaro arte eta laguntza hauei aplikatutako araubideak ezarritako finantza-kontrolaren betebeharrak eten arte luzatuko da.

3.5.3.2.- Barne-funtzionamenduko araubidea

- a) Jardueren koordinazioaren, gauzatzearen, dokumentazioaren eta kontrolaren arduradunak eta prozedurak.
- b) Bilera-araubidea. Erabakiak hartzeko arauak, honako hauek bermatuz: kide guztien parte-hartzea, haien arteko berdintasuna, botazioetan gehiengoak errespetatzea eta funtzionamenduaren gardentasuna.
- c) Taldekideen arteko eta talde operatiboaren beste kide batzuekiko komunikazioa. Eskatzaileen/onuradunen taldearen ordezkaria eta talde operatiboaren koordinatzailea bozeramaileak izango dira laguntza ematen duen administrazioaren eta kontrolen arduradunen aurrean.
- d) Lanetik sortutako berrikuntzarako proiektuaren jabetza. Proiektua gauzaten denean sor daitezkeen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideei dagozkien aurreikuspenak. Informazio sekretuaren edo isilpekoaren erabilera-arauak.
- e) Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzeko barne-prozedura: kideren baten baja, hori ordezte, beste kide batzuek atazak bere gain hartzea.

3.5.3.3.- Araubide ekonomikoa

- a) Laguntza justifikatzeko eta gastuak dokumentatzeko barne-prozedurak. Agiriak taldearen ordezkariari igortzea. Agiriak eta egiaztagiriak artxibatzea eta zaintzea.



- b) Taldearen ordezkariak jasotako laguntza taldekideen artean banatzeko prozedura eta arauak. Egindako diru-transferentzien egiaztatzea.
- d) Taldekideek dirua itzuli behar badute, erantzukizun solidarioa adieraztea. Ordezkariak eta kideek erantzukizuna bere gain hartzea, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak arau-hauste administratibotzat hartzen dituen portaerekin lotutako kasuetan. Barne-erantzukizunak eta barne-prozedurak, gerta litezkeen kasu hauetarako: hautagarriak ez diren gastuak arbuizatzea, laguntza murriztea eta dirua itzultzeko eskaerak edo laguntzen araubidearen arauak haustearen ondoriozko zigorrak.

3.5.3.4.- Barne-gatazkak konpontzeko metodoak

3.6.- Non aurkeztu behar dira agiriak?

Eskaera eta eskatutako agiriak batera aurkeztuko dira deialdiaren aginduak ezarritako epean eta moduan:

- Xede horretarako prestatutako webgunean bete eta grabatuko da, euskarri informatikoan <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/ekonomiaren-garapen-azpiegitura-saila/>
- Inprimatu eta paperean bidali beharko zaio, sinatuta eta zigilua jarrita, Kalitatearen eta Elikagaien Industrien zuzendariari.
- Hemen entregatu ahalko da:
 - a) ZUZENEAN zerbitzuan (jendearentzako arretarako Gasteizko, Donostiako eta Bilboko bulegoetan).
 - b) Apirilaren 29ko 72/2008 dekretuan ezarritako EAEko Laguntza-zerbitzuetan.
 - c) Eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan adierazitako edozeinetan.

4 ORDAINKETA ESKATZEA ETA GASTUA JUSTIFIKATZEA

4.1.- Nola eskatzen da ordainketa?

Deialdia egin duen aginduak finkatutako epean, edo, bestela, emandako luzapenean ezarritakoan, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Egingako jarduerak justifikatzeko memoria.
- Jatorrizko fakturak eta ordainketa-ziurtagiriak.
- Erantzukizunpeko adierazpena. Haren bitartez, adierazi behar da fakturak ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuetan; eta, aurkeztu badira, programa horiek eta faktura bakoitzari dagokionez diruz lagundu den ehunekoa adierazi behar dira.
- Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduak dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Derrigorrezkoa denean, Proiektuaren justifikazio-kontuaren auditoretza-txostena; Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (KAEO) inskribatuta dauden auditoreek egin behar dute txostena, maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduari jarraikiz (2007ko maiatzaren 25eko BOE, 125. zk.).

4.2.- Nola justifikatzen da ordainketa?

Oro har, auditoretza-txostenak honako gai hauek jaso beharko ditu, eta horrek ez die eragingo arauak ezar ditzakeen gutxieneko egiaztapenei.

- a) Kostu guztiak lotuta egon behar dira proiektuarekin, eta ezinbestekoak izan behar dira proiektua egoki egikaritzeko.
- b) Proiektuko onuradun batek kostu guztiak ordaindu behar ditu proiektua egikaritzeko epearen barruan.
- c) Onuradun bakoitzeko eragin diren kostuak zehaztuko dira, eta, horretarako, dokumentu operatiboko (I. eranskina) 4. taularen formatu erabiliko da.
- d) Hala badagokio, laburpen-taula bat eratuko da onuradun bakoitzeko (adibide gisa erantsi denaren antzekoa), fakturen inguruko informazio hau adierazteko:

PROIEKTUAREN IZENA			ONURADUNA			
Hurrenkera-zk	Sortutako produktua/zerbitzua	Hornitzailea	Fakturaren zk	Igorpen-data	Ordainketa-data	Zenbatekoa BEZ gabe
1						
2						
3						

Gastu motei buruzko taula eta horien euskarri diren dokumentuak II. eranskinean kontsultatu daitezke.

5 PROIEKTUA ETA HAREN EMAITZAK EZAGUTARAZTEA

Europako Batzordearen 808/2014 (EB) Egikaritze Erregelamenduaren III. eranskinaren 2. atalean ezartzen dira onuradunek zer erantzukizun dituzten informatzeari eta jakinarazteari dagokienez.

Onuradunek informatzeko eta jakinarazteko jarduera guztietan LGENFren laguntza nahitaez aitortu behar dutela nabarmendu daiteke. Aitorpen hori egiteko, Batasunaren ikurra erakutsi, eta LGENFren laguntza aipatu behar dute.

<https://www.boe.es/doue/2014/227/L00018-00068.pdf>

Halaber, 16.1. azpineurrira (nekazaritzaren produktibitateari eta iraunkortasunari dagokienez EBE Europako Berrikuntza Elkartearen talde operatiboak sortzeko eta horiek funtzionatzeko laguntzen ingurukora) atxikitako proiektuen kasuan, nahitaez hedatu behar dira EBEn sarearen bitartez.

Horretarako, "*Common format for interactive innovation projects*" izeneko inprimaki bat sortu da.

<https://ec.europa.eu/eip/agriculture/en/content/eip-agri-common-format?stakeholder=3394>

Kalitatearen eta Elikagaien Industrien Zuzendaritzak formulario horren bertsio elebiduna (ingelesez eta gaztelaniaz) helaraziko die onuradunei, deialdia ebatzi eta gero.

Formatu komun horrek aukera ematen du proiektuaren bizi-ziklo osoan informazioa emateko. Formatu komunaren edukia edozein unetan eguneratu daiteke, beharrezkoa denean; adibidez, proiektuaren tarteko fase batean. Proiektuari buruzko informazioa, gutxienez, proiektuaren hasieran eta amaieran eskuratu ahal izango da; hasieran, egoera proiektuaren hasieran deskribatuko da, izenburua eta xedeak barne direla, eta, amaieran, proiektutik eratorritako emaitzak/gomendioak deskribatuko dira, proiektuaren azken txostena eta laburpen praktiko bat edo batzuk barne direla.

Proiektua zenbait elementuz osatuta dago. Horietako batzuk nahitaez bete behar dira, beste batzuk betetzeko gomendatzen da eta beste batzuk aukerakoak dira.

6 KONTSULTEI ETA ZALANTZEI DAGOKIENEZ

6.1.- Neurri horren esparruan, lankidetzako proiektuaren proposamena prestatzeari eta aurkezteari dagokienez zalantzarik badut, norengana jo dezaket?

- Proiektuaren edukiarekin, lankidetzako proiektua planteatzearekin, kideen egokitasunarekin edo proiektua diseinatzearekin lotutako bestelako zalantzen inguruko kontsultak egiteko, hauengana jo behar da:

KALITATEAREN ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIEN ZUZENDARITZA

Santiago Martínez (s-martinez@euskadi.eus)

HAZI FUNDAZIOA

Pilar Riaño (prianso@hazi.eus)

NEIKER

Iker Bilbao (ibilbao@neiker.eus)

AZTI

Amaia Barrena (abarrena@azti.es)

ELIKA

Monica de Prado (mdeprado@elika.eus)

INNOBASQUE

Olga Gomez (ogomez@innobasque.eus)

- Izapidetze administratiboko gaiekin lotutako kontsultak egiteko eta zalantzak argitzeko, honengana jo behar da:

KALITATEAREN ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIEN ZUZENDARITZA

Esteban Gómez, M^a Teresa (mt-esteban@euskadi.eus)

I. ERANSKINA

DOKUMENTU OPERATIBOAREN EREDUA

DOKUMENTU OPERATIBOA

1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 35. artikuluan ezarritako lankidetzarako laguntzak

PROIEKTUAREN IZENA

Ordezkarria/eskatzailea:

Kideak:

BEHAR BEZALA IDENTIFIKATUTAKO KIDE BAKOITZAREN SINADURA

1.- Egikaritze-laburpena (gehienez, 500 karaktere)

2.- Artearen egoeraren analisisa

3.- Proiektuaren helburu orokorrak eta espezifikoak

4.- Proiektuaren ezaugarriak: konpontzeko arazoa edo aprobetxatzeko aukera, inpaktua, ekoizgarritasunari eta jasangarritasunari dagokienean, esperotako emaitzak eta horien garrantzia, berrikuntza-potentziala, ezarpen-plana, komunikazio-plana, jarduketa-adierazleak eta bideragarritasun-frogantza.

- **4BIS.-** Horrez gain, 16.1. azpi-neurriari aurkeztutako proiektuen kasuan, EBEn helburuetatik esperotako ekarpena adierazi behar da, nekazaritzaren produktibitateari eta iraunkortasunari dagokienez.

5.- Talde Operatiboaren edo Berrikuntza-Taldearen helburuak Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziaren helburuekin bat eginez.

6.- Talde operatiboaren edo berrikuntza-taldearen osaera:

- - taldekideen deskribapena, bakoitzaren eginkizuna eta proiektuaren helburuak betetzeko duten garrantzia
- - kide bat izendatzea funtsen hartzaile

7.- Talde operatiboaren edo berrikuntza-taldearen funtzionamendua

- Hasiera eta iraupena
- Barne-funtzionamenduko araubidea
- Araubide ekonomikoa
- Gatazkak konpontzeko araubidea

TO/BEren barne-funtzionamendua: gardetasunarekin lan egiteko, bai bere funtzionamenduan, bai erabakiak hartzean, hartutako prozedurak deskribatzea.

8.- Osatzen duten faseak eta atazak deskribatzea

FASEAK:

- Hasiera-data
- Amaiera-data
- Deskribapena
- Gastua

ATAZAK:

- Arduraduna

- Hasiera-data
- Amaiera-data
- Deskribapena
- Helburua
- Gastua

Faseen eta atazen laburpena

FASEA	LOTUTAKO ATAZA	ENTREGATZEKOA	DATA

(1. taula)

9.- Kronograma

Proiektuaren hasiera-data:

Proiektuaren amaiera-data:

ATAZAK	2017				2018			
	1T	2T	3T	4T	1T	2T	3T	4T
1. Ataza								
2. Ataza								
3. Ataza								

(2. taula)

10.- Aurrekontua

Aurrekontu orokor laburtua aurkeztuko da, eta bat egin beharko du eskaeraren III. atalean adierazitako zifrekin eta kontzeptuekin.

	ORDEZKARIA	1. KIDEA	2. KIDEA	3. KIDEA	GUZTIRA
AZTERLANAK					
DINAMIZAZIOA					
FUNTZIONAMENDUA					
PROIEKTU PILOTUAK					
KOMUNIKAZIOA					
GUZTIRA					

(3. taula)

Taldekode bakoitzaren arabera bereizitako aurrekontu bat aurkeztuko da

KIDEA-----						
	AZTERLANAK	DINAMIZAZIOA	FUNTZIONAMENDUA	PROIEKTU PILOTUAK	KOMUNIKAZIOA	GUZTIRA
Langileak						
Zeharkakoak (% 15)						
Kontsumigarriak						
Ekipoak eta azpiegitura						
Azpiktratazioa						
Bidaiak eta dietak						
GUZTIRA						

(4. taula)

Langileen gastuetan taldekode bakoitzak parte-hartzaile bakoitzaren nortasuna eta lan-kategoria berariaz adierazi beharko ditu, bai eta honako hauek adierazi ere:

- Proiektuan eman beharreko ordu-kopurua:
- Soldata gordina + gizarte-segurantzako enpresaren kostua
- Kostua/orduko, hitzarmenean edo akordioan finkatutako ordu-kopuruaren arabera

	Parte-hartzailea (nortasuna eta lan-kategoria)	Proiektuan eman beharreko ordu- kopuruao	Soldata gordina + gizarte- segurantzako enpresaren kostua	Kostua/orduko, hitzarmenean edo akordioan finkatutako ordu-kopuruaren arabera	Ordu- kopuru x kostua/ orduko GUZTIRA
GUZTIRA					

(5. taula)

II. ERANSKINA

GASTUEN EGIAZTAGIRIAK

Gastu mota	Kontuan hartu beharreko oharrak	Euskarri-dokumentuak
Barneko langileak	<ul style="list-style-type: none"> - Orduko kostua urteko soldata gordinen oinarrituta kalkulatzen da (gastu sozialak barne), lan-orduekin zatituta, erakundearen indarrean dagoen hitzarmenaren arabera. - Ekoizleen/autonomoen kasuan, 15,7 €/orduko kostua kalkulatu da, 2016rako finkatutako erreferentziazko errentaren arabera (AAA/2640/2015 Agindua). <p>Langileen gastuetarako aurreikusitako zenbatekoa proiektu osoaren aurrekontuaren % 60 baino txikiagoa izango da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Denbora erregistratzeko orriak, langileak proiektuari eskainitako denbora jasotzeko. Edo enpresaren ziurtagiria, langileak proiektuari eskainitako denbora jasotzeko. - Besteren konturako langileak: langilearen nominak, nomina ordaindu dela egiaztatze agiria, TC1 eta TC2 eta hitzarmen kolektiboaren kopia. - Autonomoak: zinpeko deklarazioa edo kudeaketa-zentro baten ziurtagiria.
Zeharkako kostuak	Europako araudian aurreikusitako kostu sinplifikatuen sistema aplikatzeko, zeharkako kostuei diruz lagun daitezkeen langileen kostuen % 15eko tasa ezarri zaie.	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dute justifikaziorik behar.
Kontsumigarriak	Proiektua egoki egikaritzeko behar diren produktuak dira, hala nola lehengaiak, material suntsikorra, eta abereak.	<ul style="list-style-type: none"> - Fakturak, ordainagiriak. - Kide batek lursailak, abereak, lehengaiak edo makineria laga baditu, eta fakturarik egon ezin bada, ordainketa honako hauen bidez justifika daiteke: <ul style="list-style-type: none"> - Perituen azterlanak - Zinpeko deklarazioa, ordainketa behar bezala dokumentatutako merkatuko prezioei jarraikiz egin dela justifikatzeko

Gastu mota	Kontuan hartu beharreko oharrak	Euskarri-dokumentuak
Azpikontratazioa	<p>Partzuergoaren parte ez den erakunde edo pertsona bati kanpo-zerbitzuak kontratatzea. Adibidez, aholkularitzaz, azterketez, prestakuntzaz, itzulpenez, diseinuaz, kudeaketaz, ekitaldien antolamenduaz eta abarrez ari gara.</p> <p>Kontrataturako jardueretarako aurreikusitako zenbatekoa proiektu osoaren aurrekontuaren % 60 baino txikiagoa izango da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Faktura - Egindako ordainketen banku-agiria - Hala badagokio, kontratua eta horren baimena, erakunde emailearen aldetik - Hala badagokio, jarduera egiteko aurkeztu diren eskaintzak eta memoria justifikatzailea, baldin eta proposamen ekonomiko merkeenari ematen ez bazaio.
Ekipoak eta azpiegitura	<p>Hautagarritzat jo dira alokairuko edo proiektu piloturako behar diren ekipoak eta azpiegiturak amortizatzeko gastuak.</p> <p>Alokairuko edo ekipoak eta azpiegiturak amortizatzeko gastuak ezingo dira proiektuaren aurrekontu osoaren % 30 baino handiagoak izan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Faktura. - Ordainketaren banku-agiria. - Deskargu ekonomikoan egotzitako amortizazio-gastu guztien amortizazio-fitxa eta horiek egotzeko jarraitutako irizpidea.
Bidaiak eta dietak	<p>Gastu hauek sartzen dira: garraio publikoak, auto partikularrenak, enpresako autoenak, ostatuarenak eta mantenukoak edo eguneko dietenak. Horiek guztiak zerbitzua emateagatiko diru-laguntzen inguruko Eusko Jaurlaritzaren araudiaren eraginpean egongo dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Auto partikularrenak eta enpresaren autoaren kasuetan, kilometroak 0,29 €/km-ko prezioan ordaintzen dira. - Mantenu-gastuak tiketetan edo fakturen bidez justifikatuko dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bileraren gai-zerrenda, akta edo bileraren sinaduren orria. - Bidaiak erregistratzeko orria (gastuen likidazioko orriak izan daitezke). - Ordaindutako fakturak edo tiketak, kasuan kasu.

PROIEKTUEN BALORAZIO ETA HAUTAKETA- IRIZPIDEEN GLOSARIOA

PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK	
Eragina produktibitatean eta iraunkortasunean	Produktibitatean izandako eraginaren deskripzioa: diru-sarrerak gehitzea edo gastuak gutxitzea. <ul style="list-style-type: none"> - Eragina ekonomia eta jendarte iraunkortasunean: Balio erantsia edo BPGri eginiko ekarpena handitzea edota enpleguari eutsi edota sortzea, berdintasuna, baztertzeko arriskuan dauden pertsonak ekartzea. - Ingurumen iraunkortasunaren eragina: karbono arrastoa, arrasto hidrikoa, sortutako azpiproduktuak edo hondakinak gutxituz, produktuok berriz erabiliz, ingurumena aldeztuz.
Emaitzen garrantzia	Sektorean proiektuaren emaitzen onuradun izango diren erabiltzaile potentzialen % adieraztea.
Berrikuntza-potentziala	Produktu, zerbitzu, prozesu eta teknologia berriaren berritasun/ originaltasun maila, berori ezarrita, lortuko litzatekeen aldaketaren garrantziaren arabera.
Inplementazio plana	Faseak, atazak, ematekoak eta kronograma deskribatzea. Helburuak, arduradunak, parte-hartzaileak, epeak eta espero diren emaitzak deskribatzea.
Komunikazio eta zabaltze plana	Komunikazio euskarrien eduki eta formaren deskripzioa, kontuan izanda ea baliagarri eta egokiak diren erabiltzaileentzat.
Jarduketaren adierazleak	Zenba daitezkeen, baliagarriak diren eta aurreikusitako ekintzen betepena egiaztatzeko informazio kritikoa eskaintzen dituzten adierazleen zerrenda.
Bideragarritasuna eta zabalpena erakustea	Proiektu pilotuaren implementazioaren deskripzioa.

TALDE OPERATIBOAREN HELBURUA	
Helburuak ezartzea	Proiektuaren xede orokorraren eta proiektuaren helburuen deskripzioa; horrela deskribatu behar dira: espezifikoki, modu neurgarrian, era errealistan, modu lorgarrian eta epeetan mugatuta.
BLEB Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziaren helburuekin bat etortzea	Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziaren helburu nagusiekiko lotura maila eta eurekin bat egite maila deskribatzea http://www.euskadi.eus/aurkezpena-berrikuntza-lankidetz-estrategia/web01-a2nekber/eu/
Artearen egoeraren analisia	Konpondu nahi den arazoa edo betebeharra, horren inguruan sortutako jakinduria, aurreko oinarri teorikoa eta horrekin lotutako esperientziak ondo zehaztea.
TALDE OPERATIBOAREN EDO BERRIKUNTZA-TALDEAREN OSAERA	
Eragileen egokitasuna	Proiektuan parte hartzen dutenen gaitasun, konpetentzia eta nahikotasun maila deskribatzea, proiektuan zehaztutako helburuak lortzeari dagokionez.
Beste TO/BE batzuekin kolaboratzea	EAEko beste talde operatibo/berrikuntza ekipo batzuekiko kolaborazioa/kooperazioa egiaztatzea.
Diziplina askoko kooperazioa	Taldekideen dibertsitatea eta osagarritasuna deskribatzea.
TO/BE ez diren beste eragile batzuegan hiltzea	TO/BE osatzen duten eragileak ez diren eragile batzuegan emaitzek izandako eraginaren deskripzioa, komunikazio eta zabalpen planean adierazitakoaren arabera eta bideragarritasuna eta zabalkundea erakusteko ezarritakoaren arabera.
Ezagutza trukearen kantitatea eta kalitatea	Proiektua garatzeko dinamikak, tresnak eta lankidetzako lan metodoak deskribatzea.